

2003KO URRIAREN 30EKO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hiruko urriaren hogeita hamarrean, iluntzeko zazpiretan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti, Juan Manuel Serna Portugal, Alejandro Crespo Blanco eta Angel Olaso Villalba.

Aktan adieraziko da Inazio Barandiaran Aldasoro zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasera eman eta eguneko gai zerrendarekin sartu aurretik, orain dela egun gutxi gertatutako Xanet Barreras zinegotziaren aitaren heriotza dela eta, Udalaren izenean doluminak ematen zaizkio.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2003ko uztailaren 23an eta irailaren 25ean egindako bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.-

Alkateak esaten du ordenantza fiskalen aldaketa proposamena, orokorrean, Kontsumo Prezioen Indizearen igoeraren arabera dela. Horretarako 2002ko abuztutik 2003ko abuztura bitarteko aldaketa hartu da eta denboraldi horretako aldaketa % 2,7koa izan da. Gaineratzen du, erizpide orokor honi ondoren xehatuko dituen salbuespenak egiten zaizkiola: zabor bilketa zerbitzua, ur hornidura eta saneamendua eta kiroldegiko zerbitzuak.

Zabor bilketa zerbitzuaren kasuan % 5eko igoera planteatzen da, zerbitzuaren hobekuntzak suposatuko duten kostuaren igoera dela eta.

Ur horniduraren inguruan, esaten du, %27ko defizita dagoela 2003ko aurrikuspenetan eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren egitasmoen arabera, 2004-2007 denboraldirako % 40ko igoera aurrikusten dela kostuetan, beraz honek, guztira % 67ko

...///...

defizita suposatzen du 2007rako. Honi Agerreko deposituko urarena gehitu behar zaio, hemendik aurrera ur honengatik ere saneamenduko kolektorera botatzeagatik ordaintzen den tasa ordaindu egin beharko baita, eta honek 15.000,- euro (2.500.000,- pta.) inguru suposatuko du.

Guzti hori kontutan hartuta, etxezibizitzetan %15eko igoera planteatzen da kontsumoen tarifyan eta %10eko igoera tarifa finkoan; etxebizitzetarako ez den horniduran berriz, %20ko igoera kontsumoen tarifyan eta %10koa tarifa finkoan.

Gaineratzen du alkateak, zinegotzietan bidali zaien zirriborroan azaltzen ez bada ere, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren koefizientea Kontsumo Prezioen Indizearen arabera igoko litzakela, eta orain arteko koefizientea 1,1829 baldin bazen 1,2148ra pasatzea planteatzen dela.

Bestalde eta iazko Osoko Bilkuran gai honen inguruan hitzegindakoaren arabera, industrietarako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren aplikatu beharreko koefizientea milako 6 izatea planteatzen da.

Une honetan Inazio Barandiaran zinegotzia bertaratzen da.

Kiroldegia dagokionean, esaten du, zenbait berariazko igoera planteatzen direla. Tarifa orokorrean %10eko igoera planteatzen da eta tarifa familiarrean %15ekoa; 6 hilabeteko bonoa kendu egiten da, funtzionaltasun arazoak direla medio; Ikastaroetan, orokorrean, KPIren aldaketaren araberrako igoera planteatzen da eta salbuespen gisa igoriketako ikastaroetan %10eko igoera planteatzen da.

Azkenik, esaten du alkateak, ordenantza fiskalen testuak Toki Entitateen Zerga sistema aldatzeko martxoaren 19ko 4/2003 Foru Arauera egokitzea planteatzen da.

Ordenantza fiskalak, planteatzen diren aldaketekin, bere espedienteetan aurkitzen dira.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ez dutela proposamen hau onartuko eta azken Hazienda Batzordean proposatu zutela igoera KPIren aldaketan araberrakoa izan zedin. Gaineratzen du egia dela Udalak gastu eta sarreraren arteko orekara jo behar duela baina bestalde igoera gehiegizkoak iruditzen zaiela, batipat ura, zaborrak eta kiroldegia kasuan.

Esaten du, bestalde, ordenantza fiskalen gaia aurrekontu programa batekin lotuta dihoan gaia izanik eta inolako aurrekontu programarik aurkeztu ez denez, hau ere aurka bozkatzeko beste arazoi bat dela.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du ondo iruditzen zaiola KPIren aldaketaren araberrako igoera baina ikusi ahal izan duela 1997tik hona igoera handiak eman direla eta galdetzen du ea defizit guztia tasen igoera bidez estali behar al den edo aurrekontu bidez.

Estensoro zinegotziak (EAJ-PNV) ur hornidura eta zabor biltzea zerbitzuekin zer gertatzen ari den esplikatzen du. Orain dela 15 urtetik hona zein prozesu eta hobekuntza eman diren azaltzen du eta honek kostuen igoera handia ekarri duela esaten du. Esaten du baita ere uraren %15eko igoerak, m³ko baxoerdi bat kostatzen dena suposatzen duela.

Olaso zinegotziak esaten du arazoa duela baina herritarrak ez duela hori horrela ikusten.

...///...

...///...

Alkateak esaten du defizita gora dihoala Kontsortzioa kostuak igotzen joan delako eta Udalak urte batzuetan ez dituela tasak igo edo kostuen igoera baino igoera txikiagoak izan direla.

Alkateak esaten du lehen esandakoa osatuz, tasak ordaintzen laguntzeko ordenantza aldatzea proposatzen dela baita ere, eta planteatzen den aldaketa honekin dirulaguntza jasotzeko kontutan hartuko diren sarrera minimoen taulak eguneratuko liratekelarik, Beasaingo ordenantzaren eredua jarraituz. Ordenantza hau ere bere espedientean aurkitzen da.

Jarraian Alkateak eta Serna zinegotziaren interbentzio ugari ematen dira, gaiaren inguruan eta aurrekontuaren inguruko zenbait gairen haritik.

Olaso zinegotziak esaten du KPIren arabera igoerarekin ados dagoela eta %5a arteko igoerarekin ere baietz, uraren kasuan %10a arteko igoera onartzeko prest legokela. Gaineratzen du Kiroldegiaren kasuan, jubilatuei tasak igo egin zaizkiela pixka bat eta jubilatuek mimitu egin beharko liratekela pixka bat.

Guzti honen ondoren, bozketara jartzen da ordenantza fiskalen aldaketa eta Osoko Bilkurak, aldeko 9 botuz (EAJ-PNV, EA), aurkako botu 2 (PSE-EE) eta abstentzio batez (PP), honako erabaki hauek hartzen ditu:

- 1.- Ordenantza fiskalen aldaketa proposamen hau, bere espedientean aurkitzen dena, haserako izaeraz onartzea.
- 2.- Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lanegunetako denboraldian.
- 3.- Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akordioa behin betiko bihurtzat joko da akordio espreso berri baten beharrik gabe.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zortzi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

...///...